## Non gaude?



LORTUTAKOAK

Somos Comenius






- Iturrama, 43-a
- 31007. **IRUÑA**
- **Telefonoa**: 948 175 614
- **Fax**: 948 197 042
- **Web**: amaiurikastola.com
- **Eposta**: ikamaiur@educacion.navarra.es
- **Ordutegia**: bulegoa: 8:30etatik 13:00etara
  ikastetxe: 7:30etatik 22:00etara


edición junio 2012 / 2012ko ekainan argitaratua

Etengabeko hobekuntzako dinamikaren barruan taldean lan egiten dugu, ikastetxeek osatutako sareetan. Gutun honen edizioa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak kalitatearen kudeaketa sistemen hedapen programaren barruan kokatuko litzateke, 458/2010 ebazpenaren arabera. Ondorengo ikastetxeen artean elkarlanean egin da: Iruñeako “Amaiur”, Atarrabiako “Atargi”, Zizurko “Erreniega”, Antsoaingo “Ezkaba” ikastetxe publikoak eta “Lekaroz-Elizondo” BHI.

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación

Calidad institutos de Navarra
Kalitatea Nafarroako institutuetan
KADINET

AMAIUR IKASTOLA HLHIP


- Iturrama, 43-a
- 31007. **IRUÑA**
- **Telefonoa**: 948 175 614
- **Fax**: 948 197 042
- **Web**: amaiurikastola.com
- **Eposta**: ikamaiur@educacion.navarra.es
- **Ordutegia**: bulegoa: 8:30etatik 13:00etara
  ikastetxe: 7:30etatik 22:00etara


# Zerbitzuen Gutuna

publikoa kalitatezkoa hurbila baloreak etorkizuna hobekuntza doakoa berrikuntza prestakuntza osoa

AMAIUR IKASTOLA HLHIP

## Nor gara?

Gaur egungo gizartean, ikasle bakoitzaren gaitasunak kontuan izanik, pertsona euskaldun eleanitzak eta konpetenteak hezitzea bilatzen duen Ikastola publikoa gara.

## Zer nahi dugu?

Amaiur Ikastolak holako ikastetxea izatea nahi du eta horren alde arituko da:

- Euskal kultura eta euskarekiko motibazioa eta erabilera bultzatuz ikasle hiztun euskaldunak eta eleanitzak heziko dituen ikastola, ahozkotasunaren metodologiari lehentasuna emanez.
- Arlo guztietan konpetenteak izango diren ikasleak hezituko dituena ebaluazio jarraia, emankorra eta hezitzailea bermatuz.
- Teknologia berriak erabiltzen eta arlo honetan ikasle trebeak heziko dituena.
- Bizikidetza eta aniztasun plangintza aurrera eramango duena.
- Ikastolako alderdi guztietan koordinazio tinko eta koherentea izango duena.
- Bere kabuz pentsatzeko, adierazteko eta ikastearekiko interesak bilatzeko gai diren ikasleak hezitu nahi dituena.
- Haur bakoitzaren behar desberdinei erantzuten diena.



## zein zerbitzu ematen dugu?

**Kalitatezko hezkuntza dohainik; hau da gure hezkuntza eskaintza:**
- D eredua, hots, arlo guztiak emateko eta barne bizitzarako hizkuntza euskara da (murgiltze prozesua barne).
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasketak (3 - 12 urte bitarte).
- Ingelesa Haur Hezkuntzako lehenengo mailatik aitzina.
- Gaztelania Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik gora.

**Oinarrizko zerbitzuak:**
- Orientazio zerbitzuak: orientatzailea, logopeda, pedagogia terapeutikoko irakaslea eta laguntza irakasleak Haur Hezkuntzan.
- Jantokia, eskola-egun guztietan
- Garraioa.
- Haurtzaindegia.
- Eskolaz kanpoko jarduerak.



**Planak eta proiektuak:**
- Aniztasun plana: laguntzak, bikoizketak eta bakarkako eta taldeko indartze saioak.
- Ikastetxeko Kalitatea Kudeaketarako Sistema.
- Bizikidetza plana: Bizikidetza Araudia, Bizikidetza Batzordea, Bizikidetza Araudia.
- Inguruarekiko konpromisoa: kontsumoa gutxitzeko plana, mankomunitateko ekintzak, osasun proiektuak, e-twining partaidetza, auzoko elkarteekin elkarlana.
- Tutoretza plana
- Aniztasuna plana
- Irakurketa plana eta Irakurketa sustatzeko Lan Taldea
- Euskara Batzordea eta Lan Taldea
- Comenius Proiektuak

**Instalazioak:**
- Liburutegia
- Informatika gela
- Kirol guneak: patioa, frontoi estalia, soinketa gela, haur parkea.
- Hizkuntza gela
- Psikomotrizitate gela
- Bikoizketarako gelak
- Musika gela



## Konpromisoak eta adierazleak

Amaiur Ikastolak kalitatezko hezkuntza zerbitzua eskaintzen du akreditatutako etengabeko hobekuntza sistema baten barnean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua giltzarria izanik. Horretarako hurrengo konpromiso eta adierazleak ezartzen ditu.

| | Konpromisoak | Adierazleak |
|---|---|---|
| 1 | Eskola Eleanitza izatea euskara, gaztelera eta ingelesa hizkuntzen erabilpena bultzatuz. | Hizkuntza ezberdinetan programatutako eta burututako ekintzen kopurua. |
| 2 | Kalitatezko hezkuntza ematea. | Familien gogobetetzea, ikasleek jasotako prestakuntza akademikoaren mailari dagokionez (>7). |
| 3 | Emaitza akademikoak ahalik eta hoberenak izatea kanpoko frogetan. | Kanpoko Frogetan Nafarroako batez bestekoa baino puntu erdi bat altuago. |
| 4 | Hezkuntza Proiektu Berritzaileetan parte hartzea. | Parte hartzen dugun Proiektuen kopurua. |
| 5 | Kalitate sistema aitortu baten bidez ikastetxea kudeatzea (etengabeko hobekuntza bermatuz). | IKKS kalitate agiria. |
| 6 | Erakundeekin elkarlana bultzatzea. | Gurekin harremana duten erakundeen kopurua. |
| 7 | Ikastetxean bizikidetza egokia izateko prebentzio ekintzak burutzea. | Familien gogobetetzea ikastetxearen bizikidetzarekin (>7). |
| 8 | Ikasleekin emozioen kudeaketarako estrategiak, gatazken ebazpena eta trebetasun sozialak lantzea. | Familien gogobetetzea ikasleek jasotako giza prestakuntzarekin (>7). |
| 9 | Curriculuma osatzeko jarduera osagarri erakargarriak, eleanitzak eta hezigarriak eskaini eta burutzea. | Familien eta ikasleen gogobetetzea ikastetxean antolatutako jarduera osagarriekin (>7). |
| 10 | Kurtsoaren ezaugarriei buruz familiei informazio zehatza eta argia ematea. | Familien bertaratzea ikasturte hasierako bileretan %80 baino altuago izatea. |
| 11 | Hiru urteko haurrek harrera ona izan dezaten, egokitze prozesua eraginkorra eta familiarekin elkarlanean erraztea. | Familien gogobetetzea ikastolan jasotako harrerarekin (>7). |
| 12 | Ikasgaietan, informazio eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea curriculumaren atal ezberdinetan. | Informazio eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen duten ikasgai kopurua. |

| | Konpromisoak | Adierazleak |
|---|---|---|
| 13 | Ikasleriaren ebaluazio gardena eta berdintsua ziurtatu. | Homogeneizazioa egiten den arloen ehunekoa (>80). |
| 14 | Familiei beren seme-alaben garapenari buruz informatzea. | Familien gogobetetzea, tutoreengandik jasotako laguntzarekin(>7). |
| 15 | Zentroko beharrei erantzuteko irakasleriaren prestakuntza garatzea. | Prestakuntza egiten duten irakasle kopurua. |
| 16 | Jantoki eta garraio zerbitzuetan arreta ona ematea. | Familien gogobetetzea garraio eta jantoki zerbitzuekin (>7). |
| 17 | Modu eraginkor batean kexa, iradokizunak, adostasunak eta erreklamazioak bideratu. | Epe barnean erantzundako kexa , iradokizunak, adostasun eta erreklamazioen ehunekoa. |

## Konpromisoak betetzeko bermeak

- Kalitate kudeaketa sistemaren bidez, ikastolak konpromisoak betetzearen aldizkako jarraipen eta kontrola egiten du.
- Helburuak ez betetzekotan, ikastolak badu dagozkion konponketa ekintzak hartzeko estandarizatutako prozedura.
- Emaitzak urtero argitaratuko dira eta familiei helaraziko zaizkie





## zerbitzuaren erabilera arduratsua

**Eskubideak**
- Ikastolaren bizitzan aktiboki parte hartzea eta hobekuntzarako proposamenak aurkeztea.
- Ikastolako ekintzei buruz garbi eta erabilgarri informatua izatea.
- Bakoitzaren beharrak eta gaitasunen arabera hezkuntza atenzioa jasotzea.
- Portaera eta ahaleginetan baloratua izatea.
- Datu pertsonalak babestea.

**Betebeharrak**
- Hezkuntza komunitatearen partaide guztiak eta zentroko instalazio guztiak errespetatu.
- Ikastolara etortzea.
- Ikastolak eskaintzen dituen prestakuntza eskaintzak aprobetxatzea.
- Ikas-ohiturak garatzea eta ikasketetan ahalegintzea.
- Familiak beren seme-alaben irakats-ikaskuntzaren prozesuan arduratzea.



## komunikazio bideak

**Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak**
- Ikastolako iradokizun kutxaren bitartez.
- Ikastolako web orriaren bitartez.
- Zuzendaritza taldeak egindako idatzizko erantzunaren bitartez.

**Parte hartzeko bideak**
- Kontseilu eskolarra.
- Guraso elkartea (jantoki batzordea, ekonomikoa, jarduera osagarriak, eta abar)
- Urteroko gogobetetze inkestak.

**Komunikazioa**
- Irakasleria, Orientazio Departamendua eta Zuzendaritza taldekoekin elkarrizketak.
- Euskarri informatikoa: EDUCA, web orria eta posta elektronikoa eta Kaixo orria

## Arautegiko erreferentziak

Gure ikastetxeak eskaintzen dituen heziketa zerbitzuen arautegia Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren web orrian aurkitu ahal da, hurrengo helbide elektronikoan:

http://www.educacion.navarra.es/portal/Guia+del+Profesorado/Curriculos/ESO